



Kulturaren Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de la Cultura

ESTADÍSTIKA

EAEko

Zinema-aretoei

Buruzko

Txostena

Aurkibidea

1. TXOSTENA

1.1.	Metodologia	3
1.2.	Egin beharreko lanen xedea eta deskribapena.	4
	1.2.1. Jardueraren eta teknologia digitalaren hasiera-urtea.	4
	1.2.2. Aretoen dimentsioa: guztizko edukiera eta areto kopurua.	5
	1.2.3. Teknologia digitalaren eta 3D teknologiaren sartze-maila.	7
1.3.	Emaitzak programazioaren ezaugarrien arabera.	13
	1. Eranskina: Eragiketari buruzko galdesorta.	19

2. ZABALTZE OHARRA

2.1.	Aurkezpena	22
2.2.	Sarbidea eta mugikortasuna errazten duten neurrien sartze-maila.	23
2.3.	Desgaituei egokitutako eserlekuen eskuragarritasuna.	26
2.4.	Teknologia digitalaren, 3D teknologiaren eta proiektagailu-teknologiaren sartze-maila.	27
2.5.	Azpitulua jartzeko eta audiodeskribapenerako mekanismoen sartze-maila.	30
	2. Eranskina: Eragiketari buruzko galdesorta zabaldua.	32

1.1. METODOLOGIA

Txosten honetan EAEn dauden zinema-areto publikoei eta pribatuei eta horien programazioaren ezaugarriei buruzko informazioa eguneratzeko EAEko enpresa-zinemei buruz 2010eko ekainean egindako inkesta-jardunaren emaitzak aurkezten dira.

Inkesta-prozesua erroldakoa izan da abiapuntuko direktorioa osatzen zuten 62 zinemen gainean, baina 4 zinema itxi eta 5 berri ireki direla atzeman denez, azken direktorioa 63 zinema izan dira. Denbora-epe laburrean lortutako erantzun-maila oso handia izan da (62 zinema); hortaz, esan behar da batek bakarrik egin diola uko.

Eskatzen den informazioari dagokionez, I. eranskinean galdesorta azaltzen da, oinarritzko bi azterlan-eremurekin lotutako informazio-edukiak biltzen dituen:

- a. Zinemen eta zinema-aretoen ezaugarriak, baita emanaldi digitaleko teknologia eta 3D edukitzearen inguruko baldintzak ere.
- b. Egindako programazioaren deskribapena, honako hauek bilduta: programazioaren irismena saio kopuruaren eta berriz emateko ohiko egutegiaren arabera, baita zinema moten garrantzi erlatiboa ere.

Jarraian, azterlanaren emaitza nagusiak aurkeztuko ditugu.

1.2. ARETOEN EZAUGARRIAK

1.2.1. JARDUERAREN ETA TEKNOLOGIA DIGITALAREN HASIERA-URTEA

Inkesta honetan, lehenik eta behin, zinema bakoitzaren jarduera abian jarri zeneko antzintasunaren azterketa egiten da, bai zinema-areto gisa duen antzintasuna, bai modu espezifikoan, teknologia digitalaren eta 3D teknologiaren bitartez emandako proiektzioen antzintasuna.

EAEko zinemen jardueraren batez besteko antzintasuna 20 urte ingurukoa da; hortaz, jardueraren hasieraren batez besteko urtea 1991. urtea da. Gipuzkoari dagokionez, batez besteko antzintasuna handiagoa da, zinemak abian jarri zireneko batez besteko urtea 1988. urtea baita, Araban eta Bizkaian, ordea, 1994. urtea da. Kudeaketa motaren arabera, ia ez dago alderik zinemen antzintasunari dagokionez.

Modu espezifikoan jarduera digitalari dagokionez, jarduera hori duela oso denbora gutxi jarri da abian, batez besteko urtea 2007. urtea baita EAEko zinema guztien kasuan. Arabako zinemetan gainerako lurraldeetan baino lehenago sartu zen teknologia digitala (batez beste 2004. urtean, Gipuzkoan, aldiz, 2006an eta Bizkaian 2009an).

Egiazta daiteke teknologia digital bidezko proiektzioen jarduera lehenago sartu dela kudeaketa pribatuko zinemetan kudeaketa publikoetan baino.

1. irudia. Jardueraren hasiera-urtea eta teknologia digitala eta 3D jardueraren hasiera-urtea, Lurralde Historikoaren eta kudeaketa motaren arabera.

	GUZTIRA	Lurralde Historikoa			Kudeaketa Mota		
		Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Publikoa	Pribatua	Mistoa
Hasiera-urtea (Batez bestekoa)	1991,4	1994,7	1994,1	1988	1991,3	1991,1	1994,5
Jarduera digitalaren hasiera-urtea (Batez bestekoa)	2007,4	2004,3	2009,3	2006,7	2009,5	2007,2	

1.2.2. ARETOEN DIMENTSIONA: GUZTIZKO EDUKIERA ETA ARETO KOPURUA

Kontsultatutako zinemen artean, guztira 217 zinema-areto daude eta guztizko edukiera 46.000 eserlekukoa da. Azterlan honen arabera, areto bakar bat duten zinema asko daude (hirutik bi). Aitzitik, EAEko guztizko zinemen % 30ek 6 areto edo gehiago ditu.

2. irudia. Zinema kopurua zinemen dimentsioaren eta Lurralde Historikoaren arabera. (zenbaki absolutua eta % bertikalak)

Areto kopurua	GUZTIRA		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	EAE	%b.	EAE	%b.	EAE	%b.	EAE	%b.
Areto bat	40	64,5	3	42,9	18	66,7	19	67,9
2-3 areto	3	4,8	0	0,0	1	3,7	2	7,1
4-5 areto	1	1,6	0	0,0	1	3,7	0	0,0
6-9 areto	12	19,4	2	28,6	4	14,8	6	21,4
10-12 areto	4	6,5	1	14,3	2	7,4	1	3,6
13-16 areto	2	3,2	1	14,3	1	3,7	0	0,0
GUZTIRA	62	100,0	7	100,0	27	100,0	28	100,0

Dimentsio handieneko zinemen kolektiboaren artean daude zinema-areto gehienak, eta, beraz, EAEko emanaldiak eskaintzeko edukiera potentzialaren zati handi bat. Hortaz, EAEko lau zinema-aretotatik hiru eta hiru eserlekuatik bi 6 areto baino gehiago dituzten zinemetakoak dira (aipatu den zinemen guztizkoaren % 30).

3. irudia. Areto kopurua eta guztizko edukiera (eserlekuak) zinemen dimentsioaren eta Lurralde Historikoaren arabera (zenbaki absolutua eta % bertikalak)

Areto kopurua	GUZTIRA		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	EAE	%b.	EAE	%b.	EAE	%b.	EAE	%b.
Areto bat	40	18,4	3	7,0	18	18,8	19	24,4
2-3 areto	8	3,7	0	0,0	3	3,1	5	6,4
4-5 areto	4	1,8	0	0,0	4	4,2	0	0,0
6-9 areto	90	41,5	14	32,6	32	33,3	44	56,4
10-12 areto	45	20,7	12	27,9	23	24,0	10	12,8
13-16 areto	30	13,8	14	32,6	16	16,7	0	0,0
GUZTIRA	217	100,0	43	100,0	96	100,0	78	100,0

Areto kopurua	GUZTIRA		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	EAE	%b.	EAE	%b.	EAE	%b.	EAE	%b.
Areto bat	14.032	30,5	958	12,1	5.479	26,6	7.595	43,6
2-3 areto	1.968	4,3	0	0,0	982	4,8	986	5,7
4-5 areto	1.097	2,4	0	0,0	1.097	5,3	0	0,0
6-9 areto	14.489	31,5	1.736	21,8	5.370	26,1	7.383	42,3
10-12 areto	8.297	18,0	2.248	28,3	4.578	22,2	1.471	8,4
13-16 areto	6.108	13,3	3.008	37,8	3.100	15,0	0	0,0
GUZTIRA	45.991	100,0	7.950	100,0	20.606	100,0	17.435	100,0

Lurralde Historikoaren arabera, Araban dago areto eta eserleku kopuru handiena dimentsio handieneko zinemen artean. Aitzitik, areto bakar bateko zinemen garrantzi erlatiboa nabarmena da Gipuzkoan; lurralde horretako guztizko eserlekuen % 43,6 biltzen baita.

Zinema-aretoak dituzten zinemen EAeko batez besteko guztizko edukiera 750 bertaratuen ingurukoa da, eta batez beste 3,5 areto daude zinema bakoitzeko.

Lurralde historikoen arabera, ikusten da batez besteko aldea esanguratsua dela zinemen batez besteko edukierari dagokionez. Hortaz, Arabako lurralde historikoan zinemetan batez beste 1.136 lagun sartzen dira guztira; edukiera hori Bizkaiko eta Gipuzkoako zinemetako batez besteko guztizko edukiera baino askoz ere handiagoa da, Bizkaian 763 lagun sartzen baitira, eta Gipuzkoan, aldiz, 622.

Lurralde-eremuaren araberako emaitza horiek bat datoz zinema bakoitzean batez beste gisa dagoen aretoen kopuruarekin. Izan ere, Araban ratio hori zinema bakoitzeko 6,1 aretora iristen da batez beste, Bizkaian eta Gipuzkoan, ordea, zinema bakoitzeko aretoen batez bestekoa askoz ere txikiagoa da, 3,6 eta 2,8 areto baitaude, hurrenez hurren.

4. irudia. Guztizko edukiera eta areto kopurua zinema bakoitzeko, Lurralde Historikoaren eta kudeaketa motaren arabera.


	GUZTIRA	Lurralde Historikoa			Kudeaketa Mota		
		Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Publikoa	Pribatua	Mistoa
Guztizko edukiera (Batez bestekoa)	741,8	1135,7	763,2	622,7	406,3	1003,3	383
Areto kopurua (Batez bestekoa)	3,5	6,1	3,6	2,8	1,1	5,4	1,0

Era berean, kudeaketa motaren arabera, aldeak esanguratsuak dira. Modu pribatuan kudeatutako zinemen dimentsioa kudeaketa publikoko eta mistoko zinemena baino askoz ere handiagoa da. Zinema pribatuen kasuan, guztizko batez besteko edukiera 1.000 lagunetik gorakoa da, eta 5,4 areto daude batez beste. Aitzitik, zinema publikoen eta mistoen kasuan, guztizko edukiera 400 lagunetik gorakoa besterik ez da.

lido horretatik, egiaztatzen da kudeaketa pribatuko zinema ia gehienek areto bakar bat dutela.

Areto publikoetako areto bakoitzeko batez besteko edukiera areto pribatuen edukieraren bikoitza, ondorengo grafikoan ikus daitekeenez

5. irudia. Aretoen batez besteko edukiera lurraldearen eta kudeaketa motaren arabera.




Beraz, egiazta daiteke nola zinema-aretoen kudeatzen eredu desberdina dela areto kopuruari eta guztizko edukiari dagokionez. Izan ere, zinema pribatuek areto kopuru handiagoa dute (5 aldiz handiagoa) baina, era, berean, areto bakoitzeko batez besteko edukiera kudeaketa publikoko eta mistoko aretoena baino askoz ere txikiagoa da.

1.2.3. TEKNOLOGIA DIGITALAREN ETA 3D TEKNOLOGIAREN SARTZE-MAILA

Hiru zinematik batek baino zertxobait gehiagok (% 29,0) zeukaten teknologia digitala 2010eko ekainean. Ehuneko hori % 10,6ra jaisten da aretoak kontuan hartuta kalkulatzen bada.


6. irudia. Teknologia digitala duten zinemen eta zinema aretoen ehunekoak.



Zinema kokatuta dagoen Lurralde Historikoaren arabera, teknologia digitalaren sartze-mailak oso desberdinak dira: Araban (% 42,9) Bizkaian (zinemen % 29,6k erabiltzen du teknologia hori) eta Gipuzkoan baino handiagoak dira mailak (% 25,0).

Aitzitik, teknologia digitalaren sartze-maila areto kopuruaren arabera aztertzen badugu, egiaztatzen da ehuneko horiek antzekoak direla lurralde historikoetan; izan ere, Araban sartze-maila % 7 da, Bizkaian % 12,5 eta Gipuzkoan % 10,3.

7. irudia. Teknologia digitalaren sartze-maila zinemetan eta zinema-aretoetan Lurralde Historikoaren arabera.




Azterketa kudeaketa motaren arabera egiten bada, ikusten da teknologia horren sartze-maila askoz ere handiagoa dela kudeaketa pribatuko zinemen kasuan (% 45,7); izan ere, ehuneko mota hori kudeaketa publikoko zinemen kasuan ikusten den mailaren (% 8,7) hirukoitza da. Aitzitik,

gutzizko aretoen gaineko sartzeta-maila orekatuagoa da, eta zertxobait handiagoa da, gainera, kudeaketa publikoko modalitatearen kasuan.


Badirudi egiaztapen horrek erakusten duela teknologia digitala duten zinema pribatuetan teknologia digitala zinema horiek dituzten areto gutxi batzuetan sartzera mugatzen dela (zehazki, % 16,3); horregatik, zinema pribatuetako areto gehienek ez dute teknologia hori.

8. irudia. Teknologia digitalaren sartzeta-maila zinemetan eta zinema.



EAEko zinemetan 3D teknologiaren sartzeta-maila teknologia digitalaren sartzeta-maila baino zertxobait txikiagoa da; izan ere, zinemen % 27,4k teknologia mota hori zuten 2010eko ekainean; ehuneko hori, ordea, nabarmen murrizten da sartzeta-maila areto guztiak kontuan hartuta aztertzen badugu: % 10,1.


9. irudia. Teknologia digitala duten zinemen eta zinema aretoen ehunekoa.



Zinema kokatuta dagoen Lurralde Historikoaren arabera, 3D teknologiaren sartze-mailak teknologia digitalaren kasuan ikusitako mailen antzekoak dira, eta, beraz, handiagoak Arabako zinemetan (% 42,9) gainerako lurralde historikoetako zinemetan baino, kasu horretan ez baita guztizko zinemen % 30 gainditzen.

Aitzitik, areto kopurua kontuan hartzen badugu, sartze-mailak antzekoagoak dira lurraldeetan; nolahi ere, ehunekoa zertxobait handiagoa da Bizkaian (% 12,5) Gipuzkoan (% 9,0) eta Araban (% 7) baino.


10. irudia. 3D teknologiaren sartze-maila zinemetan eta zinema-aretoetan Lurralde Historikoaren arabera



Kudeaketa motaren arabera egindako azterketaren kasuan, ikusten da 3D teknologiaren sartze-maila askoz ere handiagoa dela kudeaketa pribatuko zinemen kasuan (% 42,9); maila hori modu publikoan kudeatzen diren zinemen kasuan ikusten dena baino askoz ere handiagoa da (% 8,7).


Aitzitik, teknologia digitalaren kasuan bezalaxe, aretoak kontuan hartuta egindako azterlanak erakusten du 3D teknologiaren sartzeta-maila zertxobait handiagoa dela areto publikoetan pribatuetan baino; hortaz, dagoeneko 3D teknologia duten zinema pribatuetan teknologia horren sartzeta-maila zinema barruko areto gutxi batzuetara mugatzen da (zehazki aretoen % 15,6ra).

11. irudia. 3D teknologiaren sartzeta-maila zinemetan eta zinema-aretoetan kudeaketa motaren arabera.



Azkenik, hiru zinematatik batek adierazi du aukera duela teknologia eta 3D teknologia bere zinema-aretoetan sartzeko edo teknologia hori duten areto kopurua igotzekoa (teknologia hori lehendik zuten zinemen kasuan). Aitzitik, % 69,4k adierazi du ez duela teknologia hori jartzeko asmorik, eta teknologia tradizionalekin jarraitzeko asmoa duela.

12. irudia. Aretoetan teknologia digitala eta 3D teknologia sartzeko asmoa (edo 3D areto kopurua handitzeko lehendik 3D izanez gero).




Lurralde Historikoaren araberrako azterketak erakusten du 3D teknologia duten aretorik ez duten zinemen ehuneko txikiagoa den lurralde historikoetan teknologia hori sartzeko joera handiagoa

atzematen dela, itxuraz. Izan ere, Gipuzkoan hiru zinematatik batek pentsatu du teknologia digitala eta 3D teknologia sartzea bere aretoetan; Bizkaian, aldiz, ehuneko hori % 29,6 da, eta Araban % 14,3k besterik ez du adierazi teknologia horiek sartzeko asmoa duela (lurralde horretan teknologia horien sartzeko-maila handiagoa da).

Teknologia mota hori sartzeko asmoa nabarmena da (% 42,9) eredu pribatuaren bitartez kudeatutako zinemen kasuan eta modu publikoan kudeatutako zinemetan ikusitakoa baino askoz handiagoa (% 13,0).

13. irudia. Aretoetan teknologia digitala eta 3D teknologia sartzeko asmoa (edo 3D areto kopurua handitzeko lehendik 3D izanez gero).



1.3. EMAITZAK PROGRAMAZIOAREN EZAUGARRIEN ARABERA

EAEko zinemek urte bakoitzean, 2009. urtean nahiz 2010. urtean, egindako saioen guztizko kopurua 190.000ra iristen zen ia-ia, eta horrek esan nahi du zinema bakoitzak 3.000 saio baino gehiago egiten dituela batez beste urte bakoitzean.

14. irudia. Urteko guztizko saio kopurua, Europako zinemarena eta euskarazko zinemarena, Lurralde Historikoaren eta kudeaketa motaren arabera. (zenbaki absolutua)

	GUZTIRA	Lurralde Historikoa			Kudeaketa Mota		
		Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Publikoa	Pribatua	Mistoa
2010eko saio kopurua	189.774	46.900	74.931	67.943	7.200	181.776	798
Europako zinemako saio kopurua 2010ean	67.335	17.502	26.580	23.253	2.753	64.356	226
Euskarazko zinemako saio kopurua 2010ean	5.785	1.458	1.556	2.771	282	5.438	65
2009ko saio kopurua	188.670	46.879	73.887	67.904	6.995	180.874	801
Europako zinemako saio kopurua 2009an	66.898	17.502	26.143	23.253	2.672	64.000	226
Euskarazko zinemako saio kopurua 2009an	5.765	1.458	1.528	2.779	284	5.415	65

Gorago adierazitako datuek erakusten dute programazioa kudeaketa pribatuko zinemen jardueran biltzen dela (urteko saioen guztizkoaren % 95,8), bai programazioari dagokionez orokorrean, bai bereziki Europako eta euskarazko zinemarekin lotzen denari dagokionez.

Lurralde Historikoaren arabera, Bizkaiko zinemek urteko guztizko saioen % 39 baino zertxobait gehiago biltzen dute, Gipuzkoako zinemek baino gehiago (azken horiek % 36 inguru); Arabako zinemek, ordea, urteko guztizko saioen % 25 inguru programatzen dute, eta horrek esan nahi du programazio-maila nabarmena dela zinema bakoitzeko, beherago ikusiko dugunez. Programazioaren emaitza orokor horiek Europako zinemaren programazioarekin lotutako irudi espezifikoren oso antzekoak dira.

Nolanahi ere, euskarazko zinemaren kasuan ikusten da euskarazko programazioaren kontzentrazioa zertxobait handiagoa dela Gipuzkoan; hortaz, urtean egiten diren euskarazko guztizko saioen erdia inguru lurralde horretan biltzen da, Bizkaian, aldiz, % 27ra iristen da kopurua (urtean egindako guztizko saioei buruzko ehuneko baino hamar puntutik beherago).


15. irudia. Urteko guztizko saio kopurua, Europako zinemarena eta euskarazko zinemarena, Lurralde Historikoaren eta kudeaketa motaren arabera. (% bertikalak)

	GUZTIRA	Lurralde Historikoa			Kudeaketa Mota		
		Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Publikoa	Pribatua	Mistoa
2010eko saio kopurua	189.774	24,7	39,5	35,8	3,8	95,8	0,4
Europako zinemako saio kopurua 2010ean	67.335	26,0	39,5	34,5	4,1	95,6	0,3
Euskarazko zinemako saio kopurua 2010ean	5.785	25,2	26,9	47,9	4,9	94,0	1,1
2009ko saio kopurua	188.670	24,8	39,2	36,0	3,7	95,9	0,4
Europako zinemako saio kopurua 2009an	66.898	26,2	39,1	34,8	4,0	95,7	0,3
Euskarazko zinemako saio kopurua 2009an	5.765	25,3	26,5	48,2	4,9	93,9	1,1


Egiaztapen hauek Europako zinema-programazioaren garrantzi erlatiboa ez ezik euskarazko filmena aztertu ostean berresten dira. Europako zinemaren kasuan, ikusten da 2009. eta 2010. urteetan programatutako hiru saiotatik bat baino gehiago zinema mota horretakoak zirela. Europako zinemaren garrantzi erlatiboa oso antzekoa da zinemak zeuden Lurralde Historikoaren arabera, baita kudeaketa motaren arabera ere.

Euskarazko zinemaren kasuan, saio kopuruaren garrantzi erlatiboa guztizkoaren gainean oso mugatua da (hogeita hamar saiotatik bat besterik ez); nolahi ere, Gipuzkoako zinemetan zertxobait handiagoa da.

16. irudia. Europako zinemako saioen ehunekoa urteko guztizko saioen gainean. (% bertikalak)




17. irudia. Euskarazko zinemako saioen ehuneko (% bertikalak)




Galdesortak proposatzen zuen euskarazko programazioaren azterketan sakontzea; horregatik, zinemetako arduradunei galdetzen zitzairen urtean zehar euskarazko programaziorik egiten ote zuten eta zer programazio mota egiten zuten.

18. irudia. Euskarazko programazioa, Lurralde Historikoaren eta kudeaketa motaren arabera. (% bertikalak)



Horrela, bada, esanguratsua da egiaztatzea guztizko programazioari dagokionez, euskarazko saioen garrantzia txikia bada ere, zinemetako arduradun gehienek adierazten duela zinema horietan euskarazko filmen programazioa egiten dela, nahiz eta kasu gehienetan noizean behin egiten den.


19. irudia. Euskarazko programazio mota, Lurralde Historikoaren eta kudeaketa motaren arabera. (% bertikalak)




Zinema bakoitzeko programazioaren adierazleak erakusten du urteko programazio-jardueraren intentsitatea, neurri handi batean, zuzeneko harremanean dagoela aretoen batez besteko dimentsioarekin eta batez besteko edukiarekin zinema bakoitzari dagokionez. Izan ere, zinemetako guztizko edukieraren eta Lurralde Historikoaren arabera areto kopuruaren ratioekin bat etorriz, ikusten da Araban urteko saioen batez besteko kopurua Bizkaiko eta Gipuzkoako batez besteko adierazleen ia hirukoitza dela.

Era berean, kudeaketa motaren arabera, modu pribatuan kudeatutako zinemek programatzen dituzten saioen kopurua baino askoz handiagoa da (5.000 saio baino gehiago urtean, batez beste) kudeaketa publiko edo misto bidez kudeatutako zinemekin alderatzen badugu (320 saio baino gutxiago batez beste).


20. irudia. Urteko batez besteko saio kopurua zinema bakoitzeko, Lurralde Historikoaren eta kudeaketa motaren arabera.



21. irudia. Europako zinemaren urteko saio kopurua, Lurralde Historikoaren eta kudeaketa motaren arabera.



22. irudia. Euskarazko zinemaren urteko saio kopurua, Lurralde Historikoaren eta kudeaketa motaren arabera.




Saio kopuruari dagokionez intentsitatea desberdina izatea urteko programazioaren emaitza da, hiru zinematik bik ez dutelako egunero saiorik eskaintzen. Hortaz, kudeaketa motaren arabera ikusten da bederatzi zinematik soilik batean eskaintzen direla proiektzioak asteko egun guztietan, kudeaketa pribatuko zinemen kasuan, aldiz, ehuneko horrek guztizko zinemen % 50 gaintzen du.

23. irudia. Zinemak filmak ematen dituzten egunen arabera. (% bertikalak)

	GUZTIRA	Lurralde Historikoa			Kudeaketa Mota		
		Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Publikoa	Pribatua	Mistoa
Astelehenetik ostegunera bitarte egunen batean irekitzen duten zinemak							
Bai	83,9	100,0	77,8	85,7	73,9	88,6	100,0
Ez	16,1	0,0	22,2	14,3	26,1	11,4	0,0
Ostiraletan irekitzen duten zinemak							
Bai	69,4	57,1	63,0	78,6	60,9	80,0	25,0
Ez	30,6	42,9	37,0	21,4	39,1	20,0	75,0
Asteburuetan irekitzen duten zinemak							
Bai	98,4	100,0	100,0	96,4	95,7	100,0	100,0
Ez	1,6	0,0	0,0	3,7	4,5	0,0	0,0
Egunero irekitzen duten zinemak							
Bai	35,5	57,1	40,7	25,0	13,0	54,3	0,0
Ez	64,5	42,9	59,3	75,0	87,0	45,7	100,0

Azkenik, esan behar da zinemetako urteko programazioak oso egonkorra ematen duela, hortaz, hiru arduradunetatik bik egiaztatzen dute ez dela garaiaren araberrako aldaketa sistematikorik izaten programazioan.

24. irudia. Garaiaren araberrako aldaketa sistematikoak daude urtean zehar.



I. ERANSKINA: Eragiketari buruzko galdesorta



ZINEMA ARETOEI BURUZKO INKESTA EAE-N 2010

I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

KODEA:

ARETOAREN IZENA:

HELBIDEA: **UDALERRIA:**

POSTA KODEA: |_|_|_|_| **TELEFONOA:** |_|_|_|_|_|_|_| **PROBINTZIA:**

E-MAILA: **WEB ORRIA:**

KUDEAKETA MOTA:

- 1 Publikoa
- 2 Pribatua
- 3 Mistoa

JARDUERA HASIERAREN URTEA: |_|_|_|

TEKNOLOGIA DIGITALA ETA 3D JARDUERAREN HASIERA URTEA |_|_|_|

ZENBAT LAGUN SARTZEN DA: |_|_|_|

ARETO KOPURUA: |_|

ARETOKA SAILKATU:

ARETOA	ZENBAT LAGUN SARTZEN DA	TEKNOLOGIA DIGITALA	3D TEKNOLOGIA
1			
2			
3			
4			
5			
6			
7			
8			
9			
10			
11			
12			
13			
14			
15			

II.- PROGRAMAZIOARI BURUZKO DATUAK

2.1. ASTEKO SAIO KOPURUA

Asteke saioak egunaren arabera banatu

Astelehenean saio kopurua	
Asteartean saio kopurua	
Asteazkenean saio kopurua	
Ostegunean saio kopurua	
Ostiralean saio kopurua	
Larunbatean saio kopurua	
Igandean saio kopurua	

2.2. URTEAN ZEHAR GARAIAREN ARABERA ALDAKETA SISTEMATIKOAK EMATEN AL DIRA?

1 Bai 2 Ez

2.2.1. NOLAKOAK? _____

2.3. PROGRAMAZIOAK EUSKARAZ EMATEN AL DIRA?

1 Bai 2 Ez

2.3.1. NOLAKOAK?

- 1 Astero
2 Noizean behin | (azaldu gaia, iraupena,...)

Programazioak euskaraz egiten badira, asteke egunaren arabera banatu.

Astelehenean saio kopurua	
Asteartean saio kopurua	
Asteazkenean saio kopurua	
Ostegunean saio kopurua	
Ostiralean saio kopurua	
Larunbatean saio kopurua	
Igandean saio kopurua	

2.4. URTEKO SAIO KOPURUAK ADIERAZI, EUROPAR ZINEMA ETA ZINEMA EUSKARAZ EHUNEKOTAN. Datuak 2010 urteari dagozkie. Urteroko programaziorik egongo ez balitz, zein urtetakoa den adierazi eta 2009. urteko programazioa adierazi.

2010eko saio kopurua	_ _ _	Zein urteri dagokio?
2009ko saio kopurua	_ _ _	
2010eko europar zinema ehunekotan	_ _ _	Zein urteri dagokio?
2009ko europar zinema ehunekotan	_ _ _	
2010eko zinema euskaraz ehunekotan	_ _ _	Zein urteri dagokio?
2009ko zinema euskaraz ehunekotan	_ _ _	

III.- ZINEMATEKNOLOGIA DIGITALA ETA 3D ESKURAGARRITASUNA

3.1. TEKNOLOGIA DIGITALA ETA 3D ARETOETAN SARTZEKO ASMORIK BA AL DAGO? (EDO ARETO KOPURUA HANDITZEA 3D ARETOAK IZANEZ GERO)

1 Bai 2 Ez

NOIZ? _____

OHARRAK:

ESKERRIK ASKO ZURE LAGUNTZAGATIK

2.1. AURKEZPENA

Ohar honetan informazioa zabaltzeko prozesuan bildutako aldagarriak aurkezten dira.


Horren ondoren, zabaltze-prozesu horren emaitzak aurkezten dira egindako galdera gehigarri bakoitzerako, kontuan hartuz zenbait kasutan galdera horiek aurretiazko txostenaren barnean hartutako oinarritzko informazioarekin lotu direla, agerpenaren argitasuna errazteari begira.

2.2. SARBIDEA ETA MUGIKORTASUNA ERRAZTEN DUTEN NEURRIEN SARTZE-MAILA

Establezimenduetarako sarbidea errazten duten neurrien sartze-mailari buruzko azterlanak agerian uzten duenez, hiru establezimendutatik bik aitortzen dute desgaituei establezimendu horietara sartzea ahalbidetzen dieten ekipamenduak dituztela.

la kasu guztietan, establezimenduetan dagoen sarbide mota desgaitasun fisikoren bat duten pertsonekin lotuta dago, eta bestelako desgaitasunen bat duten pertsonentzako ekipamenduak, berriz, apenas iristen dira establezimendu horien % 5era; % 5 hori, bestalde, entzuteko desgaitasunarekin, ikusteko desgaitasunarekin eta adinen-desgaitasunarekin lotuta dago.

25. irudia. Ekipamenduetarako sarbidea errazten duten neurrien sartze-maila lurraldeen eta kudeaketa motaren (% bertikalak) eta desgaitasun-tipologiaren arabera (horrelako ekipamenduak dituztela adierazi duten areto guztien gaineko %, erantzun anitza).




Aurreko grafikoetan ikus daitekeenez, Bizkaiko establezimenduek hein handiengan dituzte horrelako sarbideak, eta Arabaren kasuan, aitzitik, horrelakoak dituzten establezimenduak ez dira % 50era iristen.

Kudeaketa-modalitatearen arabera, bestalde, horrelako ekipamenduak dituzten establezimendu pribatuen eta publikoen proportzioa oso antzekoa da. Mistoen kasuan, berriz, apur bat txikiagoa da.

Ekipamenduaren barruan mugikortasuna errazten duten neurrien kasuan, halako mugikortasuna errazteko behar diren neurrien eskuragarritasun-maila % 90era iristen da EAEko establezimendu guztiak kontuan hartuz.

Mota horretako neurrien sartze-maila altu hori lurralde historiko eta kudeaketa-modalitate guztietan gertatzen da (% 85etik gorakoa da kasu guztietan), ondorengo grafikoan ikus daitekeenez.

26. irudia. Ekipamendu barruan mugikortasuna errazten duten neurrien sartze-maila lurraldeen eta kudeaketa moten (% bertilaka) eta desgaitasun-tipologiaren arabera (horrelako ekipamenduak dituztela adierazi duten areto guztien gaineko %, erantzun anitza).



Ekipamenduetarako sarbideekin gertatzen den modu berean, ia kasu guztietan establezimenduetako barne-mugikortasunerako erraztasunak desgaitasun fisikoren bat duten pertsonekin lotuta daude, baina kasu honetan, garrantzitsua da entzuteko desgaitasunak dituzten pertsoneri zuzendutako neurrien sartze-maila (% 14,5).

2.3. DESGAI TUEI EGOKITUTAKO ESERLEKUEN ESKURAGARRITASUNA

Areto bakoitzerako desgaituei egokitutako eserlekuen kopuruari dagokionez egindako eskabidea hartu da Informazioa zabaltzeko prozesu horren barnean.

Ondorengo taulan aztertutako aretoen guztizko edukiera xehatu da, eta jarraian, desgaituei egokitutako eserlekuekin lotutako edukiera espezifikoak lurralde historikoen arabera.

Eserleku guztietatik (46.000 inguru), egokitutako 880 eserleku daude, edo beste modu batean esanda, EAEko eserlekuen guztizko edukieraren % 1,9.

Zinema-aretoak kokatuta dauden lurralde historikoen arabera, Araban dago egokitutako horrelako eserlekuen eskuragarritasun-maila handiena (zehazki, % 2,3), Bizkaian, ostera, ehuneko hori % 1,9 da, eta Gipuzkoan, azkenik, % 1,7, hots, EAEko batez bestekoa baino ehuneko apur bat txikiagoa

27. irudia. Guztizko edukiera (butakak) eta desgaituei egokitutako eserlekuak zinemen dimentsioaren eta Lurralde Historikoaren arabera. (zenbaki absolutua eta % bertikalak)

Butaka kopurua

	GUZTIRA		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	z.a.	%b.	z.a.	%b.	z.a.	%b.	z.a.	%b.
Areto bat	14.032	30,5	958	12,1	5.479	26,6	7.595	43,6
2-3 areto	1.968	4,3	0	0,0	982	4,8	986	5,7
4-5 areto	1.097	2,4	0	0,0	1.097	5,3	0	0,0
6-9 areto	14.489	31,5	1.736	21,8	5.370	26,1	7.383	42,3
10-12 areto	8.297	18,0	2.248	28,3	4.578	22,2	1.471	8,4
13-16 areto	6.108	13,3	3.008	37,8	3.100	15,0	0	0,0
GUZTIRA	45.991	100,0	7.950	100,0	20.606	100,0	17.435	100,0


Egokitutako butaken kopurua

	GUZTIRA		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	z.a.	%b.	z.a.	%b.	z.a.	%b.	z.a.	%b.
Areto bat	224	25,5	22	11,7	91	22,9	111	37,8
2-3 areto	52	5,9	0	0,0	16	4,0	36	12,2
4-5 areto	12	1,4	0	0,0	12	3,0	0	0,0
6-9 areto	326	37,0	78	41,5	104	26,1	144	49,0
10-12 areto	134	15,2	28	14,9	103	25,9	3	1,0
13-16 areto	132	15,0	60	31,9	72	18,1	0	0,0
GUZTIRA	880	100,0	188	100,0	398	100,0	294	100,0

2.4. TEKNOLOGIA DIGITALAREN, 3D TEKNOLOGIAREN ETA PROIEKTAGAILU-TEKNOLOGIAREN SARTZE-MAILA

2010eko ekainean igorritako txostenean islatzen zen bezala, lau zinematatik batek baino zertxobait gehiagok (% 29,0) zeukaten teknologia digitala 2010eko ekainean. Ehuneko hori % 10,6ra jaisten da aretoak kontuan hartuta kalkulatzen bada.

28. irudia. Teknologia digitala duten Zinemen eta Zinema Aretoen ehunekoa. (% bertikalak)



Azterlanaren zabaltze-prozesuan, teknologia digital horren ezaugarrien gaineko informazio espezifikoa eskatu zaie teknologia hori dutela adierazi duten aretoei, proiektagailu motari nahiz teknologia digitalaren tipologiari dagokienez.

Horrela, teknologia digitala duten areto guztien barruan, ia guztiek dute 2K proiektagailua, kasu bakar batean adierazi du aretoak 4K proiektagailua duela, eta beste kasu batean, azkenik, ezaugarri tekniko kaskarragoak dituen gailua duela adierazi du aretoak.


29. irudia. Eskuragarri dagoen teknologia digitala (zenbaki absolutua eta teknologia digitala duten guztizko areto kopuruaren gaineko %, erantzun anitza).

	z.a.	%
Proiektagailu mota		
2K proiektagailua	22	95,7
4K proiektagailua	1	4,3
Kaskarragoa (1K, eta abar)	1	4,3
Teknologia digital mota		
2D Teknologia Digitala	22	95,7
3D Teknologia Digitala	21	91,3

Egindako txostenean, halaber, teknologia digitalik gabeko zinemek teknologia hori sartzeko duten joera ere aztertzen zen, edota halako teknologiarik ez duten aretoetara hura zabaltzeko duten joera.

Emaitzek agerian uzten zutenez, hiru zinematik batek adierazi zuen aukera zuela teknologia digitala eta 3D teknologia bertako zinema-aretoetan sartzeko edo teknologia hori duten areto kopurua igotzeko (teknologia hori lehendik zuten zinemen kasuan). Aitzitik, % 69,4k adierazi zuen ez zuela teknologia hori jartzeko asmorik, eta teknologia tradizionalekin jarraitzea pentsatzen zuela.


30. irudia. Aretoetan teknologia digitala eta 3D teknologia sartzeko asmoa (edo 3D areto kopurua handitzeko lehendik 3D izanez gero). (% bertikala)



Hori horrela izanik, adierazitakoa interesatzen zaien establezimenduek sartzea pentsatzen duten teknologien ezaugarrien xehetasunaren eskabidea hartu da azterlan-zabaltzearen barnean. Aurrerago erantsitako grafikoetan horien arabeko xehetasuna dago bilduta.

Zinemetan teknologia digitala sartzeko edota areto gehiagotara teknologia digitala zabaltzeko asmoa dutela adierazi duten hiru zinematik bi 2D nahiz 3D teknologia sartzea pentsatzen ari dira. Gainerako kasuetan, gaur egun ez dute ezein teknologiaren alde egiten.

31. irudia. Zinematik sartzea edota daudenak areagotzea pentsatzen ari diren teknologiak.




Oinarria: asmo hori adierazi duten establezimenduak. (% bertikala)

Teknologia aurreratuago horiek sartzeko asmoa duten zinema horietako gehienak Bizkaian eta Gipuzkoan daude eta kudeaketa pribatuaren esparrukoak dira.

Era berean, azterlan honetan honako hau ere proposatu zaie zinemen arduradunei: zinemetan sartu nahi dituzten proiektu-tipologiaren edo teknologia digitalen xehetasunaren berri emateko, eta baita horrelakoak dituzten aretoen kopurua zabaldu nahi duten kasuan ere.

Zehazki, teknologia digitala sartzeko asmoa zutela esan zuten zinemen erdiak baino zertxobait gehiagok adierazi zuen 2K proiektagailuko teknologia aukeratuko duela aretoen baterako, eta beste 3 zinemak, ostera (horrelako teknologia sartzea pentsatzen ari diren aretoen % 15,8), adierazi zuten 4K teknologia sartuko dutela aretoen bateko proiektagailuetan.

32. irudia. Zinemak proiektagailuetan zein teknologia mota sartzea edota daudenak zabaltzea pentsatzen ari diren. (% bertikala)



Oinarria: asmo hori adierazi duten establezimenduak.


Aurreko kasuan bezala, lurralde historikoen arabera, proiektagailuko halako teknologiak sartzea pentsatzen ari diren zinema gehienak Bizkaian eta Gipuzkoan daude, eta nolana ere, kudeaketa pribatuko zinemak dira.

2.5. AZPITITULUAK JARTZEKO ETA AUDIODESKRIBAPENERAKO MEKANISMOEN SARTZE-MAILA

Orobat, aretoetako azpigituluak jartzeko mekanismoen eta audiodeskribapenerako mekanismoen eskuragarritasun-mailari buruzko informazio-eskabidea ere bildu da azterlanean.

Gaur egun, EAEko 15 aretotatik apenas batek ditu azpigituluak jartzeko edota audiodeskribapenerako mekanismoak. Zehazki, aretoen % 6,5ek adierazi du azpigituluak jartzeko mekanismoak dituela, eta % 6,0k, berriz, audiodeskribapenerako mekanismoak.


33. irudia. Azpigituluak jartzeko eta audiodeskribapenerako mekanismoen sartze-maila (zenbaki absolutua eta guztizko areto kopuruaren gaineko %)



EAE osoko establezimendu guztien gaineko azterketa eginez, azpigituluak jartzeko mekanismoen kasuan, apenas zinemen % 10ek du horrelako mekanismoak dituen areto bat gutxienez, eta audiodeskribapenerako mekanismoen kasuan, aitzitik, ehuneko hori % 8,6 da.

Lurralde historikoei dagokienez, bestalde, adierazitako mekanismoak dituzten aretoen presentzia erlatibo handiena biltzen duena Gipuzkoa dugu (6 aretotatik batek, gutxi gorabehera), Araban ehuneko hori % 5 baino apur bat txikiagoa da, eta Bizkaian, azkenik, ia ez dago horrelakorik.

34. irudia. Azpittuluak jartzeko eta audiodeskribapenerako mekanismoen sartze-maila, lurralde historikoen arabera (lurralde historiko bakoitzeko guztizko areto kopuruaren gaineko %)



Azkenik, kudeaketa ereduaren arabera, halako mekanismoak dituzten areto guztiak kudeaketa pribatukoak dira.

II. ERANSKINA: Eragiketari buruzko galdesorta zabaldua

ELISKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Kultura saila

Departamento de Cultura



KULTURAREN EUSKAL BEHATOKIA
OBSERVATORIO VASCO DE LA CULTURA

ZINEMA ARETOEI INKESTA EAE.AN 2010

I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

KODEA:

ARETOAREN IZENA:

HELBIDEA:

UDALERRIA:

POSTA KODEA:

|_|_|_|_|

TELÉFONO:

|_|_|_|_|_|_|_|

PROBINTZIA:

E-MAILA:

WEB ORRIA:

KUDEAKETA MOTA:

- 1 Publikoa
2 Pribatua
3 Mistoa

JARDUERA HASIERAREN URTEA: |_|_|_|_|

TEKNOLOGIA DIGITALA ETA 3D JARDUERAREN HASIERA URTEA |_|_|_|_|

ZENBAT LAGUN SARTZEN DA: |_|_|_|_|

ARETO KOPURUA: |_|_|_|

ARETOKA SAILKATU:

EKIPAMENDURAKO SARBIDE FISIKOA ERRAZTEN DUEN NEURRIRIK BA AL DAGO?

1 Bai 2 Ez

BAIEZKO KASUAN ADIERAZI ZEINI ZUZENDUAK DIREN

- 1 ENTZUTEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN PERTSONAK
2 EZGAITASUN FISIKOA DUTEN PERTSONAK
3 IKUSTEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN PERTSONAK
4 EZGAITASUN INTELEKTUALA DUTEN PERTSONAK
5 BESTELAKOAK _____

EKIPAMENDUAREN BARRUAN MUGIKORTASUNA ERRAZTEN DUEN NEURRIRIK BA AL DAGO?

1 Bai 2 Ez

BAIEZKO KASUAN ADIERAZI ZEINI ZUZENDUAK DIREN

- 1 ENTZUTEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN PERTSONAK
2 EZGAITASUN FISIKOA DUTEN PERTSONAK
3 IKUSTEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN PERTSONAK
4 EZGAITASUN INTELEKTUALA DUTEN PERTSONAK
5 BESTELAKOAK _____

ARETOA	ZENBAT LAGUN SARTZEN DA	EZGAITASUNAK DITUZTEN PERTSONENTZAKO ESERLEKU KOPURUA	TECNOLOGÍA DIGITALA	3D TECNOLOGIA
1				
2				
3				
4				
5				
6				
7				
8				
9				
10				
11				
12				
13				
14				
15				

ZEHAZTU (TECNOLOGIA DIGITAL MOTA Bai MARKATUZ) AURREKO TAULAN TECNOLOGIA DIGITALA ERABILTZEN DUTELA ADIERAZITAKO ARETOEN KASUAN

TECNOLOGIA DIGITALA DUTEN ARETOAK	PROIEKTAGAILU MOTA			TECNOLOGIA DIGITAL MOTA	
	2K	4K	BAXUAGOA (1K,..)	2D	3D
1	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai
2	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai
3	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai
4	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai
5	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai
6	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai
7	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai
8	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai
9	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai
10	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai
11	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai
12	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai
13	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai	1 <input type="checkbox"/> Bai

II.- PROGRAMAZIOARI BURUZKO DATUAK

2.1. ASTEKO SAIO KOPURUA

Asteke saioak egunaren arabera banatu

Astelehenean saio kopurua	
Asteartean saio kopurua	
Astezkenean saio kopurua	
Ostegunean saio kopurua	
Ostiralean saio kopurua	
Larunbatean saio kopurua	
Igandean saio kopurua	

2.2. URTEAN ZEHAR GARAIAREN ARABERA ALDAKETA SISTEMATIKOAK EMATEN AL DIRA?

1 Bai 2 Ez

2.2.1. NOLAKOAK? _____

2.3. PROGRAMAZIOAK EUSKARAZ EMATEN AL DIRA?

1 Bai 2 Ez

2.3.1. NOLAKOAK?

- 1 Astero
2 Noizean behin I (azaldu gaia, iraupena,...)

Programazioak euskaraz egiten badira, asteke egunaren arabera banatu.

Astelehenean saio kopurua	
Asteartean saio kopurua	
Astezkenean saio kopurua	
Ostegunean saio kopurua	
Ostiralean saio kopurua	
Larunbatean saio kopurua	
Igandean saio kopurua	

2.4. URTEKO SAIO KOPURUAK ADIERAZI, EUROPAR ZINEMA ETA ZINEMA EUSKARAZ EHUNEKOTAN. Datuak 2010 urteari dagozkio. Urteroko programaziorik egongo ez balitz, zein urtetakoa den adierazi eta 2009. urteko programazioa adierazi.

2010eko saio kopurua | _ | _ | _ | Zein urteari dagokio?

2009eko saio kopurua | _ | _ | _ |

2010eko europar zinema ehunekotan | _ | _ | _ | Zein urteari dagokio?

2009ko europar zinema ehunekotan | _ | _ | _ |

2010eko zinema euskaraz ehunekotan | _ | _ | _ | Zein urteari dagokio?

2009ko zinema euskaraz ehunekotan | _ | _ | _ |

III.- ZINEMATECNOLOGIA DIGITALA ETA 3D ESKURAGARRITASUNA

3.1. **TEKNOLOGIA DIGITALA ETA 3D ARETOETAN SARTZEKO ASMORIK BA AL DAGO? (EDO ARETO KOPURUA HANDITZEA 3D ARETOAK IZANEZ GERO)**

1 Bai 2 Ez

NOIZ? _____

3.2. **ADIERAZ ITZAZU ZUEN ARETOETAN EZARTZEKO ASMOA DUZUEN TEKNOLOGIA DIGITALEN (EDO DITUZUENEZ GAIN EZARTZEKO ASMOA DUZUEN TEKNOLOGIEN) EZAUGARRIAK**

TEKNOLOGIA DIGITALAK EZARRI EDO GEHITZEKO ASMOA		
2K	1 <input type="checkbox"/> Bai	2 <input type="checkbox"/> Ez
4K	1 <input type="checkbox"/> Bai	2 <input type="checkbox"/> Ez
INF	1 <input type="checkbox"/> Bai	2 <input type="checkbox"/> Ez
2D	1 <input type="checkbox"/> Bai	2 <input type="checkbox"/> Ez
3D	1 <input type="checkbox"/> Bai	2 <input type="checkbox"/> Ez

OHARRAK:

ESKERRIK ASKO ZURE LAGUNTZAGATIK